

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA...
IKER 13

Tesiko liburuaren aurkezpena Euskaltzaindian

Bilbo, egoitza, 2003-IV-24

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

Egunon deizuela!

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta tesiko epaimahaiko burua;

Gotzon Lobera, Bizkaiko Diputazioan Euskara Sustatzeko Zuzendari Nagusia;

Nora Dañobeitia, BBK Fundazioko ordezkaria;

Iñaki Gaminde, tesiko epaimahaian idazkaria eta Mendebalde Alkarteko ordezkaria;

euskaltzainak;

euskaltzale-lagunak; etxeokak eta komunikabideetako mezulariak.

Ondo etorri!

Eskuan izango dozue aurkezpenaren amaieran Euskaltzaindiak argitaratu deustan tesiaren liburua –CDagaz argitaratu dana–, argitaratu bere era txukuan, edizino jagonean –Ricardo Badiolaren profesionaltasunari esker–.

Amaia Okarizek gogoratu eragin eustanez –bide batez eskertzekoa da Euskaltzaindiko beharginek kontsulta egunetan eskaini deustien harrera xalodindot, gogora ekarri eustala argitaratutako liburua IKER 13 dala; Korrika bere 13.a ospatu dogula eta hor *Ez Dok Amairu* omendu dala, baina –harrigarria– Oteitzak –goian bego– izen horregaz bataiatu eban kantari taldea, bataiatu eballa halan, ordura arte 13 zenbakiak eukan zori baltza apurtzeko asmoz, berak, ostera, Oteitzak ez dau gaintitu eta Korrikako egunetan, kantuak aireratzten eban 13. zenbakiaren malefizioak eroan dau gure artetik.

Liburuak ikusi dau argia, defendatu zanetik urte bira –alaigarria dana– ze dakizuen moduan, Aita Villasantek dinoanez *Peru Abarka* gure literaturako

gailurretakoa, idatzi eta handik ia 80 urtera argitaratu zan-eta. Euskal Herriko Unibertsitatean defendatu zan, Bizkaiko Irakasle Eskolan, Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Sailean. Zuzendaria, Jon Kortazar. Epaimahaia: burua, Jean Haritschelhar; idazkaria, Iñaki Gaminde; kideak, Gotzon Garate; Beñat Oihartzabal eta Adolfo Arejita.

* * *

Poza da niretzat norbere ikerlana Euskaltzaindiak –Euskal Herri osoan hitzaren labela jagoten dauanak– tesi-liburua plazaratzea. 30 urte joan dira 1973ko urtarrilaren 28an Euskaltzaindiko D Mailako Euskal irakasle titulua aita Luis Villasanteren eskutik jaso nebala. Halan da ze, badira hiru hamarkada Erakunde honetan dihardudala, 1971 haretan Alfabetatze Kanpainetan hasirik, *Jagon* Sailean, Liburutegiko Batzordean edo Argitalpenekoan.

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN da tesiaren izenburua. Liburuaren azalean izenburua euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez dator; IKER sailkoetan, bigarrenez ingelesez bere.

Euskalkia eta hezkuntza: Euskararen kanpo-historiak eta bere barrukoak eraginik, ikerketa-lan nahiz doktore-tesi ugari argitaratu da azken urteotan euskalkien ganean. Euskalkia irakaskuntzan gaitzat hartuta, ostera, oso gitxi, baina ez gure artean bakarrik, Europa zabalean bere aurrerakuntza franko oraintsu-oraintsukoa da-eta. Euskalkiaren eta Hezkuntzaren gaia, beraz, azterketa arlo barrien artean sailkatu geinke.


D Eredua bikoiztu egiten dogu, lehen hizkuntza euskara daben ikasleentzat atxikitze-eredu bilakatuz, eta lehen hizkuntza gaztelania edo frantsesa dabenentzat murgiltze-eredu bihurtuz. Tesi honen helburua irakaskuntzako atxikitze-ereduaren barruan kokatzen dogu, etxetik euskaradun izanik –euskalkidun oraingoan–, eskolaratzen diran neska-mutilen berbakeran. Eta horreen artean –Euskal Herri osokoak hartzen diran arren–, bizkaiera zein bizkaieradun ikaslea da nagusiki aztergaitzat hartzen doguna.

Tesia **dakigunetik ez dakigunera** doa. Ni eslogan hau garatzen ahalegindu naz. Mikel Zaratek eta Ander Manterolak –Karmelo Etxenagusiaz eta Lontzo Zugazagaz batera– sorturik, Labayru Ikastegiak erabili ohi dau 1973. urtea ezkerro. Berez, ikastaroak 1970ean bere baziran. Dana-dala –*Nihil novum sub sole* Eklesiastes-ekoa baieztatzeko gogoratu daigun dakigunetik ez dakigunera lehenengo darabilena zientziaren teoria modernoaren sortzaile berbera dala, René Descartes, dinoanean bere *Regulae ad directionem ingenii* liburuan (1628an):

«Pentsamendu metodikoaren ideia zein urratsez urratseko ebidentziaz gidatu den eta EZAGUNETIK EZEZAGUNERA doan, sinpletik komplexora».

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
 EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
 DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
 DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
 DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
 TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
 DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
 THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
 EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
 DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
 DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
 DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
 TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
 DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
 THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)



EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
 EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
 DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
 DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
 DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
 TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
 DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
 THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
 EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN
 DIALECTO Y EDUCACIÓN. DE LO CONOCIDO A LO DESCONOCIDO
 DENTRO DEL ENTRAMADO DIGLÓSICO DEL EUSKARA
 DIALECTE ET ÉDUCATION. DU CONNU VERS L'INCONNU DANS LE
 TRAMAGE DYSGLÓSIQUE DE L'EUSKARA (LANGUE BASQUE)
 DIALECT AND EDUCATION. FROM THE KNOWN TO THE UNKNOWN INSIDE
 THE DIGLOSSIA INTERWOVEN CONNECTIONS OF EUSKARA (BASQUE LANGUAGE)

JUAN LUIS GOIKOETXEA ARRIETA

**EUSKALKIA ETA HEZKUNTZA.
DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA
EUSKAL DIGLOSIA IRAZIAN**



EUSKALTZAINDIA
Real Academia de la Lengua Vasca
Académie de la Langue Basque

BILBO

2003

Edozelan bere, Mikel Zaratek, Lontzo Zugazagak, Karmelo Etxenagusiak eta Ander Manterolak abian jarriko bidea Ausubel guregana heldu baino hamar urte lehenagokoa da. Ni neure irakaskuntzako jardunean gero eta zordunago natxako lema horri. DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA –metodo legez– ez jako inongo euskalkiri lotzen. Planteamendu honetan etxetik euskara dakarren gutzia da aintzat hartua, jadanik dakian euskara Zegamakoa izan nahiz Txorierrikoa zein Sarakoa.

(Euskal Diglosia) Irazia deritxagu, ehundegian ehuna egitean legez gauzatzen dalako, euskara batuak, euskalki literarioak eta azpieuskalkiak bata besteari harien artetik bilbea igarota (1). Ezin ahaztuko dugu Fergusonek diglosia hizkuntza eta dialektoaren arteko harremanak azaltzeko sortu ebal.

Tesiko aurkibide nagusia: 1. Atala: Euskal Diglosia Irazia; 2.: Ikasketa Esanguratsua Hezkuntza Psikologian; 3.: Euskalkien Araketa Irakaskuntzan; 4.: Euskalkirako Curriculum; 5.: Garapenerako Iruzkina; 6.: Ondorioak; 7.: Bibliografia; 8.: Eranskinak.

* * *

Liburuan (*orain euskara batuko erregistroan jardungo dut*) Jean Haritschelharren «*Aitzinsolas*» gogoangarria dator lehenengo eta Jagon Sailburuaren «*Berbaurreko*» bide-erakuslea jarraian. Tesia euskalkiaren –bizkaieraren– eta euskara batuaren arteko korapiloa askatetik abiatzen da- izan ere, marko teorikoa izan baita gaitzena.

«In the present study, two or more languages will be said to be IN CONTACT if they are used alternately by the same persons. The language-using individuals are thus the locus of the contact. Weinreich (1979: 1)

For the purposes of the present study, it is immaterial whether the two systems are «languages», «dialects of the same language,» or «varieties of the same dialect.»»

U. Weinreich-en Hizkuntzaren Ukipenaren Paradigma hartzen dugu, baieztatzeko, euskara batua eta euskalkia ukipenean direla, pertsona berak behin banan darabiltzalako. Ukipen gunea, beraz, pertsona da eta eskolari teorikoki berdin dio ikaslea Gemikan bizi den edo Barakaldon. Gainera, ukipenaren paradigmak baliotasun bera du euskalki-azpieuskalkietarako nahiz hizkuntza biren arterako.

Irakasleak egin beharko duena da, ikasgela berean eredu bietako neska-mutilak dituela, era desberdinean jokatu batzuekin eta besteekin. Etxetik berez zuzen dakarrena: *Ezin dut ikasi; Gustatzen zait ikastea; Banabil ikasten,*

(1) AZKUE, R. M. (1969): **Diccionario vasco-español-francés**. La Gran Enciclopedia Vasca: *irazi*: urdir el lienzo en el telar; ourdir le tissu sur le métier. AN-b-lez, B-a-o-ts, G-ber.

ez duzu euskaldun hori erdalduinak jabetzeko behar duen kurtso osoan arike-ta alferrekoak egiten edukiko. Ezen eskolara berbetan jakinik datorrenak:

«... cualquier niño en edad escolar puede identificar, si bien no explicar, los errores estructurales que pueda haber en un texto, entendido éste en un sentido extenso (...). Ahora bien, reconocer éste hecho no equivale a decir que no necesita aprender y profundizar y ampliar sus conocimientos de lengua y, más evidentemente aún, sobre la lengua». Alvarez Mendez (1987:10).

Etzeko hizkera hori, ordea, ez da herrian herriko moldera idazteko eta ahozkoan ere forma osotuan eta arteztuan lantzekoa da:

«(...) nahi nuen irakaspide den euskara, ikastoletan eta ikastoletarik gora erabiltzen den euskara, ez daiteke izan, eta ez da, inoren amaren hizkuntza. Hizkuntza nolarebait batua da, nahiz batasun hori herri batekoa izan, eskualde batekoa edo Euskal herri osokoa. Bai, Zaloña. Ez diete ez zure haurrei ez besterenei ikastolan amaren hizkuntza irakasten, baizik eta mintzaera horretarik hurbilagoa edo urrutiagoa, baina bestelakoa, halaz guztiz. Zuk, esate baterako, *semiana* esango duzu eta zure haurrei *semearena* irakasten diote». Mitxelena (1970: 26)

Euskararen euskalkietan, batez ere, bizkaiera hartzen da aztergaitzat –gainerako euskalkiak ere ikertzen dituela– esanez, euskalkia, bizkaiera heteronoma dela, K. Mitxelena maisuak zioenez «dialecto de», nahiz eta euskalkiak autonomia duen: «Inoiz ikusi dudán gerra gogorrena» baino «Inoiz ikusi dudán gerrarik gogorrena» da bizkaieraren tolesteko era. Horrenbestez, bizkaiera ez da irakatsi behar beste berbeta bat balitz legez, baizik eta idatzian –atxikitze-ereduko ikasleez ari naiz– euskara batua ardatz dela, bizkaiera aldamenean izanik eta ahozkoan, etzeko euskara ardatz dela eta euskara batua alboan.

Gertatzen den diglosiarako, C. A. Ferguson-en definiziora jo dugu:

«Hizkuntzaren dialekto desberdinen aldamenean, aldaki oso kualifikatu bat»

dela diglosiaren egoera adierazteko. Ulertzen da, barietate linguistiko biren arteko harreman egonkor bezala, bat gora (high) eta bestea behera (low).

Euskal Herrian den endoglosia (Txillardegi) hemen Diglosia Irazi legez lantzen da, ehundegian ehuna egitean bezala, euskara batua, euskalki literarioa eta azpieuskalkiak bata besteari harien artetik bilbea igarota.

Diglosia Funtzionala –funtzio batzuetarako euskara batua, besteetarako euskalkia– Erramon Baxoken ekarriz baliaturik jorratzen da.

Diglosia Kateatua, L. J. Calvet-i jarraikiz, lehenik, euskara batuaren eta euskalki literarioaren arteko kateaketa gisa hartzen da; bigarrenik, euskalki literarioaren eta azpieuskalkiaren artekoa, hots, kateatua eta irazia.

D. P. Ausubel-ek dakarren ikuspegi aldaketa darabilgu ostean ikasketa esanguratsua bideratzeko, hortxe bertan kokatzeko Dakigunetik Ez Dakigune-

ra goiburua, neska-mutilak etxetik dakarten berbetatik has daitezten. Horrek ez du esan gura adin batera arte euskalkia eta gero batua irakatsi behar direla, ez-pada ze biok batera, ikasketa-prozesu osoan uztarrian eroanik.

Euskalkiaren araketa egiten da irakaskuntzan, ikasleei galdeketak bete-araziz Mauleko ikastolan, *Xalbador* Ikastegian, Bergarako *Aranzadi* Ikastolan, Bermeoko *Eleizalde* Ikastolan, *Askartza* Ikastetxean, *Kirikiño* Ikastolan, *Getxo III* Institutuan, *Bermeoko* Institutuan eta *Txorierrri* Institutuan.

Euskalkirako *Curriculum*a jorratzen da jarraian, euskalkia ikasgelan erabiltzeko. Horretarako, bereizketa guztiz garrantzitsua eskaintzen da, alegia, Atxikitze-Ereduarena –etxetik euskaldun datozenena– eta Murgiltze-Eredua –famiatiatik erdaldun datozenena–. Beti ere, curriculum irekia jotzen da aproposentzat.

Garapeneko Iruzkinean, galdeketetako emaitzak aztertzen dira marko teorikoaren argitan, baita euskal diglosiako zer eta zelan irakatsi ere.

Ondorioen artean, baieztatzen da, eskolak etxetik euskalkia jakinik datozenen ikaslea dakienetik ez dakienera eraman behar duela, euskara batua euskalkiaren arartekotasunaz ikasirik –Ikasketa Esanguratsuaeren arabera, arterik ezagun zaizkion sinboloen bitartez– eta horretarako familiako berbeta landu egin behar dela irakaskuntzan, ezen euskara batua jakiteak ez baitakar «per se» euskalkian alfabetatzea, hau da, etxetik bizkaiera dakitenentzat Atxikitze-Eredua proposatzen da, euskara batuan murgiltzeko ereduaren aurrean.

Gogoan hartu behar da Erramun Baxokek dioskuna:

«Behin betikotz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukatela konpetentzia eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik». Erramun Baxok (1985).

Hala ere, baieztatu duguna ez da oztopo, Martinet aipatuz Ninyoles-ek dioskuna onesteko:

«Como él advierte, ni la primera lengua aprendida ha de ser necesariamente la de la madre, ni tampoco es necesario que sea, por fuerza, la que el individuo usará con mayor facilidad en edad adulta.» Ninyoles (1972:159)

Familia erdaldunekoari euskara kanpotik barrurantz doakio, ikasgelatik bihotzerantz. Etxean euskaraz haziari, intimitatetik gramatikarantz. Jarraibide desberdinak. Bestalde, eskolari ezin eska dakioke dena konpontzea. Hala dio Fishman-ek:

«Garbi dago eskolak ezin duela bere gain hartu ez dagozkion aldaera funtzionalen sustapena, hala nola, izpiritu, bihotz eta intimitatearen esparruetakoak. Horregatik, hizkuntza batzuek bizirik irauteko, behar-beharrezkoa dute euren erabilera areagotzea, bai eskolara joan aurretik bai eskolaz kanpo bai eskola garaia bukatu ondoren ere». Fishman (2000:11)

Edozelan ere, irakasle guztiak ahozko berbetarako irakasle baliozko bila-ka daitezten, ezinbestekoa da Irakaskuntzaren Berbalizazioa deritzagun paradigma-jokatzea.

Berbalizazioa deritzagu, ideiak, sentimenduak, gertaerak berbalizatzeari, elez adierazteari, hitzez iragartzera emateari. Ikasgelan mutu dautzan mahai, liburu, arbel zein koadernoak mintzoaren sarean sartzea da berbalizazioa. Gelan dihardugula dihardugunean, egoera komunikatiboa sortu behar da, heziketa mutua gainditzeko. Horretarako, goizeko egunonetik beretik eskatu behar dugu erantzuna, ez dakit tankerako topikoetan ezkutatzea gaitzetsiz.

Behin ahozko jardunean dihardugunean, euskalkia berez-berez azaltzen zaigu, ezen euskara idatzia bakarria bada ere –batuan batukoa, euskalkian euskalkikoa– euskara mintzatuak anitz baitira. Beraz, euskalkia zergatik baino zelan izango da auzia, nola gauzatu behar dugun euskara batuaren jorra eta nola euskalkiarena.

Hor agertzen da hiztunaren estrategia komunikatiboak lantzea, ikasgelan etxeko berbeta eta euskara batua –batzuetan etxekoa ere batua izango da– lantzea.

Horretarako, irakasleak ere metodologia parte hartzailea jarri behar du praktikan, irakaste magistrala alde batera lagata:

«Conviene que el profesor adquiriera un conocimiento elemental de la fonética y estructura de la lengua materna del niño, para poder darse cuenta de las divergencias lingüísticas entre esa lengua materna y la lengua de la escuela, y de las posibles interferencias de sonido y estructurales. La adquisición de éste conocimiento puede ayudar al maestro a comprender las dificultades prácticas y guiar al niño con mayor efectividad». C. Ching (1984:17)

Euskaldun mota bi ditugu gure artean, euskaldun kartesianoak eta euskaldun paskalianoak. Euskaldun kartesianoentzat «Cogito ergo sum» da formula, hau da, «Badakit euskara, beraz, euskalduna naiz», erdal elebidunak –Mikel Zalbideren terminologian–, euskaldun paskalianoentzat, ostera, jakitea ez da bizitzea. Beraz, hautentzat, «Bizi naiz euskaraz, beraz, euskalduna naiz» da formula eta euskaraz bizi gura duenak, euskalkiagaz egingo du topo, baldin euskaraz bizi bada. Ondo dago *deutsut* erabiltzen dela eta ez *dautsut* jakitea, baina euskalkiaren ekarria, familiako euskararen transmisioa, hortik gora eta harago doa. *Madaria loran bete dago* ederto esana da, *Atea giltzean itxi* ere bai. Hori guztiori jaso, erabili, egin behar da, batez ere, betiko euskaldun ia elebakarrak gure artean diren.

Euskaldunon artean ez da ona bizigiroa, baina ezin hobea elkartzeko daukagun gogoia.

Eskerrak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa mezenas handiari; Gotzon Loberari Bizkaiko Foru Aldundiko Euskera Sustapen-Zuzendariari— euskalgintzan ikuspegi hain jasoa erakusteagatik; Euskaltzaindiari kulturaren abarotzea ate zabalik eskaintzeagatik.

Eskerrona tesirako lau urte bidean lagun izan ditudan guzti-guztientzat. **Galdeketetarako:** Mauleko Ikastolako Margarita Etxart eta Odette Etxegoinberri; *Xalbador* Ikastegiko Gillermo Etxebarria; Bergarako *Aranzadi* Ikastolako Justina Elexpuru; Bermeoko *Eleizalde* Ikastolako Jose Muruaga eta Aintzane Egaña; *Askartza* Ikastetxeko Bego Garaizar; *Kirikiño* Ikastolako Sebas Angoitia eta Miguel Angel Gaztelu; *Getxo III* Institutuko Joseba Butron; *Bermeoko* Institutuko Euskarako Mintegia.

Elkarrizketa Teorikoen erantzunetarako: Xabier Amuriza; Itziar Idiazabal; Miquel Siguan; Xabier Isasi; Jazinto Iturbe; Aita Fermin Iraolagoitia; Itziar Garaizar.

Eskerrona Jean-Louis Davanti, lapurtera, behe nafarrera eta zubererako zuzenketengatik; Beñat Oihartzabali ohar garrantzitsuengatik. Iñaki Gaminderi.

Ordenagailurako programengatik. Testuaren gainbegiraketagatik Rikardo Badiolari eta Iñaki Gaminderi.

Eskerrona adore etengabea eman didan Jon Kortazarri, tesiko zuzendariari;

Mendebalde Kultur Alkarteko kideei eta *Jagon* Sailekoei, lankidetzako saioetan eskainitako iradokizunengatik, eta zelan ez neure etxekoei. Eskerrona zuoi hona hurreratzeko jentilezia izan duzuenoi. Esker mila.

* * *

Bibliografia:

ALVAREZ MENDEZ, J. M. (1987): *Didáctica de la lengua materna*. Madrid: Akal.

AUSBEL, D. P.; NOVAK, J. D.; HANESIAN, H. (1993): *Psicología Educativa*. Mexico: Trillas.

BAXOK, E. (1986), «Euskara Euskalkiak», in Nazio eta herri mailako barietateen erabilera. *ASJU-XXVIII*.

CALVET, L. J. (1987): *La guerre des langues et les politiques linguistiques*. Paris: Payot.

CHING, C. D. (1984): *Cómo aprende a leer el niño bilingüe*. Madrid: Cincel.

DESCARTES, R. (1628): *Regulae ad directionem ingenii*, in *¿Existe Dios?* HANS KÜNG. Madrid.1979.

FERGUSON, C. A. (1996): «Diglossia», in HUEBNER, T. (ed.) (1996) 25-39 or. (lehenengo, 1959an argitaratua, in *Word 15*, 325-340 or.)

FISHMAN, J. (2000): Elkarrizketa, in *IVAP-27*. Vitoria-Gasteiz.

MITXELENA, K. (1970): «*Pro domo*». *EGAN* 1-3.

NINYOLES, R. (1972): *Idioma y Poder Social*. Madrid: Tecnos.

TXILLARDEGI. (1990): «Soziolinguistika egunak», in *Hizkuntza/ Hezkuntza*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea.

VILLASANTE, L. (1961). *Historia de la literatura vasca*. Bilbao. Editorial Sendo.

WEINREICH, U. (1979): *Languages in contact*. The Hague: Mouton Publishers.